

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1765

165/2023 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean Erreferente Soziosanitarioaren eginkizunak beteko dituen pertsona izendatzen den.

Bat etorrita Osasun Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuarekin (2022ko abenduaren 22ko EHAAren 243. zenbakian argitaratutakoa), zeinetan ezarri ziren gobernantza soziosanitarioaren lurralde-definizioa eta -artikulazioa, eta bereziki, haren antolamendu funtzionala, kontsulta- eta partaidetza-organoetan eta koordinazio soziosanitarioko figuretan oinarritzen dena.

Behin aztertuta abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren 2. atala, lurralde-eremuaren eta kudeaketaren araberrako koordinazio-figurei buruzkoa, eta bereziki, 45.3 artikulua, erakundeko profesionalen artetik, Erreferente Soziosanitarioaren figura izendatzeari buruzkoa.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jose Juan Uriarte Uriarte jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Erreferente Soziosanitario nagusi izendatzea.

Eta Eskualdeko Erreferente Soziosanitario izendatzea honako hauek:

- Luis Pacheco Yáñez. Zerbitzuburua. Bilboko Eskualdea. BOMS.
- Jon Lizarraga Sobrino. Zerbitzuburua. Ezkerraldeko Eskualdea. BOMS.
- Izaskun Elortegi Kaiero. Zerbitzuburua. Barrualdeko Eskualdea. BOMS.
- Begoña Mendibil Eguiluz. Zerbitzuburua. Uribeko Eskualdea. BOMS.

Bigarrena.– Izendapenak ondorioak izango ditu 2023ko martxoaren 1etik aurrera.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzari (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza) Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAren argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2023ko martxoaren 1a.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
ARATXU LOZANO OTERO.